



2019 ekitaldiko "Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzat sustatzeko programa"ren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpenari erantsita, laguntzari buruz aspektu zehatz batzuk gogorarazi nahi dizkizugu

1.- Erakunde onuradunen betekizun eta konpromisoak. (I. eranskina 8. oinarria)

8.1. Erakunde onuradunek diru laguntzak onartzeak 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta diru laguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz berezietan ezartzen direnak ere.

8.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, Euskararen erabilera normalizatzeko plana Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruan 2013-2017 aldirako onartzen duen 2014ko abenduaren 22ko Diputatuen kontseiluko erabakiak xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 249 zk. 2014ko abenduaren 31koa). Diruz lagundutako proiektuetako azken dokumentazioaren euskarazko bertsio bat eman beharko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuari

8.3. Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4. Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaziorik publikitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaziorik publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenen bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete beharko dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.8. Diru laguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, diru laguntza itzuli beharko da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.- Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko. (I. Eranskina 9. oinarria.)

Erakunde onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete diru laguntzaren xedeko jardura osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharrezkoak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jardura horri ezer gehitzen ez diotenak.

3.- Diru laguntzak ordaintzea. (I. eranskina 11. oinarria.)

1.1. Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, bermeen beharrik gabe, beharrezko finantzaketa gisara diru laguntzari atxikitako jarduerak aurrera eraman ahal izateko, aintzakotzat hartuta zer helburu duen laguntzak, proiektuen sustapen eta ekimen programa, horien xedea izanik garatzea lehiakortasuneko eta lurralde edo sektorekako harremanetako eredu berriak, halako prozesuak sortzen baitira epe luzeko ikuspegi batekin eta zuzeneko inpaktu bat izango dutenak pertsonen ongizatean eta lurraldearen iraunkortasunean, zeintzuen izaera esperimentalak zailtzen baitu eskuragarritasuna finantza erakundearen barruan, prozesu horiek berekin baitakarte gauzatze aldi luzeak, zeintzuentzat beharrezkoa baita finantzaketa edukitzea hasieratik, egingarri eta bideragarri egin dezan haien garapena eta diruz lagundutako proiektuak hasi ahal izateko funtsen beharra kontuan hartuta, proiektu gehienak irabazi asmorik gabeko erakundeek enpresa txiki eta ertainetan inplementatuak baitira, zeintzuek finantza zailtasun handiak baitituzte diru laguntzaren helburuak garatzeko, eta kontuan harturik aurreko esperientzietan proiektuek izan duten gauzatze maila. Dena den, entitate onuradunak aurretik eskatu eta zurituko du ordainketa aurreratuaren beharra. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, aurrekontuetan baliabide nahikoa badago eta diru laguntza osoaren % 60 gaingaitzen ez bada.

(ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ekonomia-sortzailea>)



Falta den kopurua proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hala bada, ordaindu baino lehen aurkeztu beharreko justifikazioaren barruan, eguneratutako egiaztagiria sartuko dira. Agiri horien ordeztu, berariaz baimendu ahal izango du Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentua, kasu bakoitzean eskumena duen administrazioak egokiak diren datuak zuzenean eman diezazkion.

4.- Diruz lagun daitezkeen kostuak. (I. eranskina 12. oinarria)

12.1 Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtasunik gabe lotuta daudenean

12.2 Langile-kostuak direnean, proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

12.7 Ez dira hautatzeko kostuak izango onuradunarekin lotura duten pertsonen edo erakundeen dagozkienak, salbuespen hauekin

- Merkatuko baldintza arruntak arabera egiten direnak; eta
- Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuaren baimena lortzen direnak, oinarri arautzaile zehatzetan adierazitako moduan.

12.8 Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, eskumena egotea, eta, merkatuko balioa inoiz ere gaindutu gabe.

5.- Diru laguntza zuzentzea. (I. eranskina 13 oinarria.)

13.1. Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuzitu beharko du erakunde onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2. Diru laguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuzitu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jardura hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik **(2020ko maiatzaren 15)** kontatuko da.

13.3. Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan erakunde onuradunak kontu zuzigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

— Jarduera memoria bat, diru laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jardura burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzeko sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

— Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuzitzeko, honako eduki hau izango duena:

* Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. **(Departamentuak emango duen eredu - ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ekonomia-sortzailea>)**

* Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan frogatutako diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

* Diruz lagundutako jardura finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo diru laguntzen xehetasuneko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere. **(Departamentuak emango duen eredu - ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ekonomia-sortzailea>)**

* Nominak eta 190 eredu eta TC1/TC2 agiriak, langileen barruko gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen kasuan, TC1/TC2 agiriaren ordeztu, Autonomoen Araubideko kotizazio-buletinen kopia. Kooperatiba-sozietateen kasuan, kooperatibako bazkideen kotizazio-ziurtagiria, Gizarte Segurantzako dagozkien erakunde laguntzaileak emana. **(Ikusi justifikatzeko prozedura dokumentua)**

* Ordu txostenak, erakunde eskatzaile, onuradun eta kontratatutako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta. **(Departamentuak emango duen eredu -**



ikusi <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/ekonomia-sortzailea>

* Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua diru laguntza eskatu aurretik egin ez den. **(Garatu den prozedura bete dela frogatuko duen dokumentazioa atxiki beharko da)**

* Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan edota entitate laguntzailekotan egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazioa, indarrean dagoena. Dokumentazio horren orde, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuari baimena eman dakioke berariaz, berak zuzenean jaso ditzan datu horiek, horrelakoak emateko eskumena duten administrazioetatik

— Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektroniko, informatiko edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.6. Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez diru laguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zuriagarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztariak. Zuriagari horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

13.7. Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako diru laguntza baino txikiagoa izan dela, diru laguntza doitu egingo da. Diru laguntza zuzitzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo diru laguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, diru laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako diru laguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

6.- Ebazpena aldatzea. (I. eranskina 14. oinarria.)

14.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino hilabete lehenago, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta diru laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

7.- Proiektuak gauzatzeko data.

Erakunde onuradunek **2020ko maiatzaren 15erako** amaitu behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

- Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programaren diru-laguntzen 2019. urteko deialdia. (2019ko martxoaren 12ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 59 zk. 2019ko martxoaren 27an).
- Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa.(GAO. 2018ko maiatzak 22, 97 zk.)
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko, 3/2007 FORU ARAUA. (GAO. 2007ko apirilak 12, 71 zk.)
- Apirilaren 29ko 24/2008 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duena. . (GAO. 2008ko maiatzak 6, 85 zk.)